



Esaldi horrekin ematen dio apaizak amaiera eukaristiari. Baina horrek ez du esan nahi gure egitekoa bukatu denik. Esan nahi duena da orain guri dagokigula bakea egitea, besteei laguntzea, etxean, kalean, lantokian, ikastolan...

Jesusek, azken afaria baino lehen, oinak garbitu zizkien bere dizipuluei. Ez zion eginkizun hori morroi bati agindu, garai hartan ohitura zen bezala, baizik eta Jesusek berak garbitu zizkien oinak dizipuluei, besteen zerbitzura egon behar dugula adierazteko.

Gure bizitzan, inoiz edo behin, beti izaten dugu laguntzaren beharra. Edo, beharbada, guri eska diezagukete laguntza. Baina laguntzak borondatezkoa izan behar du, dohainik emana. Gure gurasoen eta aitona-amonen maitasunak bezalakoa izan behar du; trukean ezer espero gabe eman behar dugu.

Har ezazue “*Hor kanpoan nago*” ipuina, eta poliki irakurri. Gero, galdetu: «Zer esan nahi du atean dagoen oharrak?». Eman dezatela beren iritzia. Ondoren, azaldu zer esan nahi duen.

Irakur dezagun 90. orrialdeko testua.

Behean, bi esaldi datoz. Lehena, «**oinak garbitzea**». Zer esan nahi du horrek gaur? Irakur dezatela idatzi dutena.

Bigarrena, «**eredua eman dizuet, nik zuekin egin dudana zuek besteekin egin dezazuen**»: zaurituta dagoenari laguntzea, inor ez baztertzea.. Jesusek erakutsi zigun zorionbideak zein diren; hau da, zoriontsu izateko zer egin behar dugun (93. orrialdean).

Hori lantzeko, «XXI. mendeko haur zoriontsuak» orri soltea hartuko dugu, eta banan-banan irakurtzen joango gara, elkarrekin komentatuz.



Bazen behin oso elizkoia zen emakume bat. Goizero-goizean, elizara joaten zen. Bidean, haurrak eta eskaleak inguratzen zitzaizkion laguntza eske, baina bera bere otoitzetan murgilduta joaten zen, eta ez zituen ikusi ere egiten.

Egun batean, betiko bidea egin ondoren, meza hastera zihoan une berean iritsi zen elizara. Atea bultzatu zuen, baina ez zen ireki. Berriro bultzatu zuen, indar handiagoarekin, baina ezin. Atea giltzapetuta zegoela konturatu zen.

Triste geratu zen oso, urte askotan lehen aldiz mezarik entzun gabe gelditu zelako. Zer egin ez zekiela, gorantz begiratu zuen...Eta hantxe bere begien aurrean, ohar bat ikusi zuen, txintxeta batekin josita:

“HOR KANPOAN NAGO”, zioen oharrak.

#### GALDERAK.


- Zuen ustez, zer esan nahi ohar horrek?
- Non aurki dezakegu Jainkoa?
- Noren ispilu dira eskaleak?




1. Daukatena pobreekin banatzen dakitenak.
2. Barkatu eta beste aukera bat ematen dakitena.
3. Hegoaldeko senideen sufrimenduarengatik negar egiten dakitenak.
4. Gaur bertan hasi eta mundua aldatu nahi dutenak.
5. Behartsuez errukitu eta beraien alde ahal duten guztia egiten duenak
6. Gauza materialez ez, baizik, maitasunez bihotza beterik daukatenak.
7. Indarkeriari uko eginez, baita jolasean ere, bakea egiten saiatzen direnák
8. Besteei laguntzen saiatzen direnak, inozotzat hartuak izan arren.


(\*) Aukerako materiala moztu, margotu eta horma.irudia egiteko.

**maitatu - amar**




**harrera**







*bidetikide -  
caminar  
juntos*



*entzun -  
escuchar*



*ospatu -  
celebrar*



*lagundu -  
ayudar*